

**OÑATIKO EMAKUMION KONTSEILUAREN  
ERAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA  
ARAUTZEKO ORDENANTZA**

**ORDENANZA REGULADORA DE LA  
CONSTITUCIÓN Y FUNCIONAMIENTO DEL  
CONSEJO DE MUJERES DE OÑATI**

**I. SARRERA**

Oñatiko Emakumion Kontseilua Oñatiko Udalaren politika publikoetan parte-hartzeko eta eragiteko espazio feminista da. 2018an ekin zion ibilbideari, eta urtez urte bide propioa urratzen ari den ekimena da, etengabeko garapenean eta kokapenean dagoena, baina norabidea ondo ezarriarik duena: tokiko politiketan feminismoa eragitea, hain zuzen. Politika publikoen eredu tradizional androzentrikoa gainditu, eta, ikuspegi feministatik, eredu justu eta parekideagoetarantz trantsitatu nahi du Oñatiko Emakumion Kontseiluak, parte-hartzeko gune egonkor eta iraunkorra oinarri izanik. Modu honetan, Oñatiko mugimendu feministatik urteetan eginiko eskaera egikaritzen da, baita Oñatiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Planean ezarritakoa ere (3.2. helburua).

Oñatiko Emakumion Kontseilua bi alderen arteko lankidetzaren eta elkarlanerako konpromisotik jaio da: Oñatiko Udala eta Oñatiko Emakumion Kontseilua. Araudi honetan jaso nahi izan da elkarlan eta lankidetzaren hori berresten duen aldeko konpromisoa, eta urrats kualitatibo eman nahi izan da taldearen erreferentzialtasunari eta elkarren arteko loturaren formalizazioari dagokionez.

Orain, Oñatiko Udalaren erronka izango da Oñatiko Emakumion Kontseilua bezalako parte-hartze espazio bat udalaren funtzionamenduan txertatzea. Izan ere, eskatzen du erakunde publikoen bereizketa klasikoa gainditzea (zurruna, bertikala, sektorialki espezializatua...), politika publikoen diseinu eta kudeaketa-modu berrietan urratsak ematea, eta bestelako erabaki eta eztabaida guzuei bide egitea.

**I. INTRODUCCIÓN**

El Consejo de Mujeres de Oñati es un espacio feminista de participación e incidencia en las políticas públicas del Ayuntamiento de Oñati. Comenzó su andadura en 2018 y es una iniciativa que año tras año ha ido construyendo su propio camino, en constante desarrollo y posicionamiento, pero con un rumbo bien establecido: incidir en las políticas locales desde el feminismo. El Consejo de Mujeres de Oñati pretende superar el modelo tradicional androcéntrico de las políticas públicas y transitar, desde una perspectiva feminista, hacia modelos más justos y paritarios, desde un espacio de participación estable y sostenible. De esta manera se materializa la petición realizada durante años desde el movimiento feminista, y en la línea de lo establecido en el II plan para la igualdad de mujeres y hombres de Oñati, en el objetivo 3.2.

El consejo de Mujeres de Oñati nace del compromiso para la colaboración y trabajo conjunto entre el ayuntamiento de Oñati y el consejo de Mujeres de Oñati. En esta normativa se ha querido recoger el compromiso bilateral que ratifica esta colaboración, dando un paso cualitativo en cuanto a la referencialidad del Consejo y la formalización de la interrelación.

El reto del Ayuntamiento de Oñati será ahora integrar en el funcionamiento municipal un espacio participativo como el consejo de mujeres de Oñati. De hecho, este reto requerirá ahora superar la clásica diferenciación de las instituciones públicas (rígida, vertical, sectorialmente especializada...) y dar pasos en las nuevas formas de diseño y gestión de las políticas públicas y propiciar otros espacios de decisión

Horrek udalaren ohiko lan-moldeak eta egiturak egokitzea eta udala osatzen duten departamendu eta agente guztien inplikazioa eskatzen du.

Araudi honek, Oñatiko Emakumion Kontseiluaren jarduna eta izaera ezartzeaz gain, ahalegin berezia egin du udalari dagozkion ardurak eta betebeharrak jasotzeko. Izan ere, Oñatiko Emakumion Kontseilua ez da udalaren mendeko organoen ohiko estutasunetik enfokatuta eratu nahi izan; lankidetzaren publiko-sozialaren eredu eta moduen logikan baizik.

Hala, administrazioaren mendeko organo bezala formalizatuko bada ere, Udalak espazio autonomo, malgu eta libre gisa aitortzen du udalaren gainerako partaidetza organoekiko. Logika horretan eratu nahi da bien arteko harremana, organoaren kontzepzioari zabalenean ulertuta, argi utziz behar formal eta praktikoa dela aukeratutako formularen atzean dagoen arrazoi nagusia, eta logika horretan idatzi da beraz arautzen duen erregelamendua.

Era berean, emakumeen kontseiluaren izaera bizi eta malgua aitortzen da, eta, unean uneko beharren arabera, udalarekiko harremana formalizatzeko modua eta egitura birplanteatzeko aukera ezartzen da, betiere kontseiluaren egonkortasuna eta bi aldeen interesak oinarri hartuta.

## II. XEDAPEN OROKORRAK

### 1. ARTIKULUA. IZAERA

Oñatiko Emakumion Kontseilua da Oñatiko Udalaren eta kontseilua osatzen duten kideen arteko partaidetzarako eta lankidetzarako gunea, eta bat egiten du Oñatiko partaidetza, lankidetzaren publiko-soziala eta irekiera instituzionala arautzeko udal ordenantzak ezarritako markoarekin: “komunitatearen eta

y debate. Esto requerirá la adaptación de las formas y estructuras de trabajo habituales del Ayuntamiento y la implicación de todos los departamentos y agentes que lo integran.

Este reglamento, además de establecer la actuación y naturaleza del consejo de Mujeres de Oñati, ha hecho un esfuerzo especial por recoger las responsabilidades y obligaciones que corresponden al Ayuntamiento. Y es que el consejo de Mujeres de Oñati no ha querido constituirse enfocado desde la estrechez habitual de los órganos dependientes del Ayuntamiento, sino en la lógica de los modelos y formas de colaboración público-social.

Así, aunque se formalizará como un órgano dependiente de la administración, desde el Ayuntamiento se reconoce como un espacio autónomo, flexible y libre respecto al resto de órganos de participación municipal. Es en esta lógica, desde donde se pretende configurar la relación entre ambas partes; desde la más amplia concepción del órgano, dejando claro que la necesidad formal y práctica es la razón principal que subyace detrás de la fórmula elegida, y en la que se ha redactado el reglamento que lo regula.

Asimismo, se reconoce el carácter mutable y flexible del consejo de mujeres y se establece la posibilidad de replantear, en función de las necesidades de cada momento, la estructura y la forma de formalización de la relación con el Ayuntamiento, siempre sobre la base de la estabilidad del consejo y de los intereses de ambas partes.

## II. DISPOSICIONES GENERALES

### ARTÍCULO 1: NATURALEZA

El Consejo de Mujeres de Oñati es un espacio de participación y colaboración entre el Ayuntamiento de Oñati y sus miembros y se alinea con el marco establecido por la ordenanza municipal reguladora de la participación, la colaboración público-social y la apertura institucional de Oñati: “se

herritarren parte-hartzea ekiteko palankatzen hartzen da. Asmo eta ikuspegi eraldatzailea, hezkuntzako, sortzailea eta emantzipatzailea duten gainerako politika publiko eta sareekin batera desberdintasunak gainditu nahi ditu, guztion onerako interesa eta konpromisoa eraiki nahi du, eta kolektiboki erantzun nahi die premiei, erronkei eta aukerei. Hori guztia guneen eta sareen arteko osagarritasunaren ideiatik abiatuta, eta premien, interesen eta jarrerren pluraltasuna eta aniztasuna barneratuta, baita kontraerriak direnean ere”.

Oñatiko Emakumion Kontseilua testu horretan definitutako lankidetzaren publiko-sozialerako egitura gisa definitzen da. Hala, “lankidetzaren horren helburua bi aldeentzako interesa duten jarduerak egitea izango da, eta horien bidez, onura orokor bat sortu eta gizarte bidezkoago eta berdinezkoago bat lortu ahal izango da”.

Ordenantzaren 9. artikulua aipatzen duenez, “Udalak lankidetzaren publiko soziala sustatuko du, bere eskumenen esparruan onura orokorra ekarriko duten interes orokorreko jarduerak garatzeko. Jarduera horiek zeharkakoak izan daitezkeen eremu hauetan egin ahal izango dira, betiere eremuok zabalak izan daitezkeela eta elkarri eragin diezaioketela ulertuta:

(...)

m) emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea; ahalduntze indibiduala, kolektiboa eta soziopolitikoak sustatzea; pentsamendu eta ekintza feminista sustatzea; indarkeria sexista prebenitzea eta arretoa ematea; eta zainketak demokratizatzea”.

Hala, Oñatiko Emakumion Kontseiluari udalaren mendeko parte-hartzeko organo arautuen izaera eman bazaio ere, udal honek parte-hartzea ulertzeko eta praktikara eramateko duen ikuspegiaren baliatuta, lankidetzarako guneen berezko ezaugarriak aitortu zaizkio (autonomia, antolatzearen gaitasuna, dinamotasuna, malgutasuna...),

concibe la participación comunitaria y ciudadana como palanca de acción que junto al resto de políticas públicas y redes con intención y visión transformadora, educativa, creativa y emancipadora trata de superar las desigualdades, construir interés y compromiso por el bien común, y atender a las necesidades, retos y oportunidades colectivamente. Todo ello desde la idea de la complementariedad entre espacios y redes, e incorporando la pluralidad y diversidad de necesidades, intereses y posturas, incluso cuando son contrapuestas”.

El consejo de Mujeres de Oñati se define como una estructura de colaboración público-social definida en dicho texto. Así, “el objetivo de dicha colaboración será desarrollar actividades de interés común para ambas partes, que supongan la generación de un beneficio general y la consecución de sociedades más justas e igualitarias”.

El artículo 9 de la Ordenanza señala que “El Ayuntamiento promoverá la cooperación público-social para el desarrollo de actividades de interés general que, dentro del ámbito de sus competencias, redunden en el beneficio general o común. Dichas actividades podrán desarrollarse, entre otros, en los siguientes ámbitos potencialmente transversales, entendiéndose que éstos pueden ser amplios y permiten interactuar entre ellos:

(...)

m) Promoción de la igualdad entre mujeres y hombres; fomento del empoderamiento a nivel individual, colectivo y sociopolítico; impulso del pensamiento y la acción feminista; prevención y atención a la violencia sexista; y democratización de los cuidados. “

Si bien al Consejo de Mujeres de Oñati se le atribuye la condición de órgano reglado y dependiente del Ayuntamiento, de acuerdo con la forma de entender y trabajar la participación de este Ayuntamiento, se le ha dotado y reconocido de características

udalaren menpeko organoek dituzten estutasunak gainditzeko helburuarekin.

## 2. ARTIKULUA. JARDUTEKO PRINTZIOAK

Oñatiko Emakumion Kontseiluaren jardunak eraldatzailea izan nahi du eta politika publiko feministak ditu ardatz. Emakumeek gaur egun bizi dituzten diskriminazio egoerez jabetu eta horiek desagerrarazteko politika publiko integralak sustatu nahi ditu Kontseiluak.

Lan hori bideratzeko erreferentziazko dokumentuak izango dira Oñatiko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II. Plana eta hortik eratorri daitezkeen plan sektorialak, eta udalaz gaindiko erakundeek ezarritako irizpide legal eta prozedimentuzkoak. Era berean, Euskal Herriko mugimendu feministak, Oñatiko mugimendu feministak eta lan akademikoak ezartzen dituzten agendak eta oinarri teorikoek gidatuko dute kontseiluaren lana.

Oñatiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Planak jasotako printzipio gidariak ezartzen dira Oñatiko Emakumion Kontseiluaren jardura bideratuko duten erreferentziazko printzipio gisa.

2.1. Paradigma feminista: Feminismoak gidatzen du Emakumion Kontseiluaren jarduna, pentsamendu feministako lerro eta dimentsio anitzak barne. Agenda feminista ezartzen da jardunerako oinarri gisa.

2.2. Aukera-berdintasuna: bermatu behar da emakumeek eta gizonek era berean baliatzen dituztela eskubide politiko, zibil, ekonomiko, sozial eta kulturalak. Eta aukera-berdintasuna bermatu behar da, alde batetik, boterea, baliabideak eta onurak eskuratzeko abiapuntuko edo hasierako baldintzetan, eta, bestetik, horiek guztiak baliatzeko eta behar den

propias de los espacios de colaboración (autonomía, capacidad organizativa, dinamicidad, flexibilidad,...) atravesando con ello las estrecheces a las que se enfrentan este tipo de órganos.

## ARTICULO 2: PRINCIPIOS DE ACTUACIÓN

La actuación del consejo de mujeres de Oñati pretende ser transformadora y se basa en las políticas públicas feministas. El Consejo pretende promover políticas públicas integrales orientadas a concienciar y erradicar las situaciones de discriminación que actualmente viven las mujeres.

Los documentos de referencia para llevar a cabo el trabajo del consejo de mujeres serán el II Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Oñati, y los planes sectoriales que de él se deriven, así como los criterios legales y procedimentales establecidos por las entidades supramunicipales. Asimismo, la acción del Consejo estará guiada por la agenda feminista y la fundamentación teórica establecida desde el movimiento feminista local, el movimiento feminista de Euskal Herria, y la labor académica.

Se establecen los principios rectores recogidos en el II Plan de igualdad de Oñati como principios de referencia, los cuales orientarán la actuación del Consejo de Mujeres de Oñati.

2.1. Paradigma feminista: el feminismo lidera la actuación del Consejo de Mujeres, incluyendo las múltiples líneas y dimensiones del pensamiento feminista. Se establece la agenda feminista como base de actuación.

2.2. Igualdad de oportunidades: se deberá garantizar que mujeres y hombres ejerzan de la misma manera los derechos políticos, civiles, económicos, sociales, culturales. Y debe garantizarse la igualdad de oportunidades en las condiciones de partida o inicio del acceso al poder, los recursos y los beneficios, por una

moduan kontrolatzeko baldintzetan. Gobernantza-ereduak bermatu beharko lukeen printzipioa da.

2.3. Interseksionalitatea: Desberdintasunei heltzeko ikuspegi gisa, kontuan hartzen du generoak beste diskriminazio-faktore batzuekin duen aldibereko erlazioa (arrazo, klase soziala, desgaitasun maila, adina, hizkuntza, orientazio sexuala, identitate sexuala, familia eredu eta inguruabar pertsonalak eta sozialak). Estrategia gisa ulertuta, aintzat hartzen du diskriminazio-oinarrien eta gizarte, ekonomia-, politika- eta lege-ingurunearen arteko lotura. Ingurune horrek, izan ere, diskriminazioak elikatzen ditu eta presioak eta pribilegio-bizipenak egituratzen ditu.

2.4. Genero-ikuspegia: Analisi eta tresna metodologiko gisa, mendekotasun patriarkalean oinarritutako genero desberdintasunak agerian jartzeko baliatu da. Alegia, emakumeen aurkako diskriminazioaren aurka kokatzen den agenda eraiki nahi den honetan, agenda horrek sistematikoki izan du kontuan gizonak eta emakumeek dituzten behar eta interes ezberdinak.

2.5. Emakumeen ahalduntzea: Planaren eta udalaren jardunaren ardatzetako bat izateaz gain, kontseiluaren jarduna gidatzen duen printzipioa ere bada, emakumeen ahalduntzea aldi berean helburua, tresna eta prozesua den heinean.

2.6. Emakume-elkarteek, mugimendu feministak zein eragile ekonomiko eta sozialek politiken garapenean parte hartzea. Zentzu horretan, herriko talde feministen eta kontseiluaren eragite esparruak bereizten dira, elkarrekiko osagarritasuna aitortzen da, eta, erronka gisa, Kontseiluak mugimendu feministaren eragite

parte, y en las condiciones de ejercicio y control adecuado de todos ellos. Es un principio que debería garantizar el modelo de gobernanza.

2.3. Interseccionalidad: como enfoque para abordar las desigualdades, tiene en cuenta la interrelación simultánea del género con otros factores de discriminación (raza, clase social, grado de discapacidad, edad, idioma, orientación sexual, identidad sexual, modelo de familia y circunstancias personales y sociales). Entendida como estrategia, vincula las bases de la discriminación con el entorno social, económico, político y legal que alimenta estas discriminaciones y vertebrata las vivencias de presión y privilegio.

2.4. Perspectiva de género: se ha utilizado como análisis y herramienta metodológica para visibilizar las desigualdades de género basadas en la dependencia patriarcal. Es decir, ahora que se quiere construir una agenda que se enmarque contra la discriminación contra las mujeres, ésta ha tenido en cuenta sistemáticamente las diferentes necesidades e intereses de hombres y mujeres.

2.5. Empoderamiento de las mujeres: además de ser uno de los ejes del plan y de la actuación municipal, es el principio que guía la actuación del consejo en la medida en que el empoderamiento de las mujeres es al mismo tiempo objetivo, herramienta y proceso.

2.6 Participación de las asociaciones de mujeres, del movimiento feminista y de los agentes económicos y sociales en el desarrollo de las políticas. En este sentido, se distinguen los ámbitos de influencia de los grupos feministas locales y del consejo, se reconoce la complementariedad mutua y desde el consejo se recoge como reto fomentar

ahalmena sustatzea jasotzen da. Emakumeen kontseiluak ez du inolaz ere ordeztuko Udalaren eta mugimendu feministaren arteko koordinazio eta elkarlanerako egiturarik. Era berean, emakumeen kontseilua eta herriko elkarte eta eragileen arteko dialogorako bideak irekita mantenduko dira, eta haien arteko elkarlan eta koordinazioa sustatuko da.

2.7. Desberdintasunak murriztea: Printzipio hau aukera-berdintasunaren eskutik doa. Gizarteko esparru eta sektore guztietan generoagatik edo bestelako zapalkuntzengatik eratortzen diren desberdintasunak aintzat hartu eta horiek murrizteko politika aktiboak sustatzeari egiten dio erreferentzia.

2.8. Giza garapen iraunkorra. Agenda 2030: Giza garapen osoak, jasangarria izan dadin eta egiturako aldaketak bultzatzen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta genero-ikuspegia txertatu behar du gizarte, ekonomia eta ingurumen politiketan.

2.9. Politika gardena izatea eta herritarrei kontuak ematea kontseiluaren jardunaren inguruan, esku-hartze publikoaren bidez berdintasunari nola laguntzen zaion jakinarazteko, eta helburu horretan kontseiluak izandako eragina plazaratzeko.

la capacidad de influencia del movimiento feminista. En ningún caso el consejo de mujeres sustituirá a una estructura de coordinación y colaboración entre el Ayuntamiento y el movimiento feminista. Asimismo, se mantendrá abierto el consejo de mujeres y los cauces de diálogo entre las asociaciones y agentes locales, y se fomentará la colaboración y coordinación entre ellos.

2.7. Reducir las desigualdades: aunque este principio va de la mano de la igualdad de oportunidades, se refiere a la toma en consideración de las desigualdades derivadas del género u otras opresiones en todos los ámbitos y sectores de la sociedad y al fomento de políticas activas para reducirlas.

2.8 Desarrollo humano sostenible. Agenda 2030: el desarrollo humano integral, para que sea sostenible e impulse cambios estructurales, debe incorporar la igualdad de mujeres y hombres y la perspectiva de género en las políticas sociales, económicas y medioambientales.

2.9. Transparencia en la política y rendición de cuentas a la ciudadanía sobre la actuación del Consejo para informar sobre el apoyo a la igualdad a través de la intervención pública y su incidencia en este objetivo.

### 3. ARTIKULUA. HELBURUAK

#### 3.1. HELBURU NAGUSIA

Udal politiketan berdintasuna maila errealean eta zeharlerrokotasunez aplikatzeko politiken eta estrategien definizioan -edo horiek ezartzeko alderdi zehatzetan- esku hartzea eta eragitea, jarraipen, kontraste, aholku eta akuilu lanak

### ARTICULO 3. OBJETIVOS

#### 3.1. OBJETIVO GENERAL

Intervenir e incidir en la definición de las políticas y estrategias para la aplicación de la igualdad a nivel real y transversal en las políticas municipales, o en aspectos concretos para su implantación, realizando labores de seguimiento, contraste, asesoramiento y fomento, garantizando

eginez, eta hala, politika publiko justu eta berdinzaleak bermatzea, lankidetzaz oinarrituak.

### 3.2. Helburu operatiboak

- 3.2.1. Udaleko jardunean agenda feminista txertatu eta lehenesteko bideak ezartzea.
- 3.2.2. Udal politiketan berdintasun ikuspegia zeharlerrokotasunez txertatzeko elkarlanerako mekanismoak eta estrategia partekatutako finkatzea berdintasun departamenduarekin.
- 3.2.3. Emakumeen parte hartze eta ahalduntze sozial eta politikorako espazio erreferente gisa ezartzea.
- 3.2.4. Askotariko emakumeen begiradaren bitartez, politika feministak ikuspegi intersektional batetik lantzea.

### 3.3. Helburu substantiboak

- 3.3.1. Udal politiketan emakumeen parte hartzea sustatzeko espazioak indartzea
- 3.3.2. Jatorri, adin, kultura, hizkuntza, gaitasun edo bestelako arrazoiak medio sistemak babesgabekotasun bereziko egoeran kokatzen dituen emakumeen parte hartze espazioak indartzea.
- 3.3.3. Kontseilua emakumeen ahalduntze indibidual, kolektibo eta sozio-politikorako tresna gisa indartzea
- 3.3.4. Herritarrentzako eta udal-funtzionamenduari dagokionez, erreferentziazko espazio bat bihurtzea
- 3.3.5. Udal politiketan eragiteko tresnetan eta estrategietan sakontzea
- 3.3.6. Gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren alde lan egin nahi duten pertsonen

políticas públicas justas e igualitarias, basadas en la cooperación.

### 3.2. Objetivos operativos

- 3.2.1. Establecer cauces para la inclusión y priorización de la agenda feminista en la actuación municipal.
- 3.2.2. Establecer mecanismos de colaboración y estrategias compartidas con el departamento de igualdad para incorporar la perspectiva de igualdad de forma transversal en las políticas municipales.
- 3.2.3. Consolidación como espacio referente para la participación y el empoderamiento social y político de las mujeres.
- 3.2.4. Trabajar las políticas feministas desde una perspectiva interseccional a través de la mirada de mujeres diversas.

### 3.3. Objetivos sustantivos

- 3.3.1. Potenciar espacios para fomentar la participación de las mujeres en las políticas municipales
- 3.3.2. Reforzar los espacios de participación de las mujeres que, por razones de origen, edad, cultura, lengua, aptitudes u otras, el sistema las sitúa en una situación de especial desprotección.
- 3.3.3. Reforzar el Consejo como instrumento para el empoderamiento individual, colectivo y socio-político de las mujeres
- 3.3.4. Convertirse en un espacio de referencia para la ciudadanía y el funcionamiento municipal
- 3.3.5. Profundizar en los instrumentos y estrategias para incidir en las políticas municipales
- 3.3.6. Crear una red de personas y agentes sociales que quieran trabajar por la igualdad de

eta eragile sozialen sarea  
sortzea

oportunidades entre mujeres y  
hombres

### 3.4. Helburu instrumentalak

- 3.4.1. Udal politiken kalitatea hobetzea
- 3.4.2. Udal politikan berdintasun ikuspegia interseksionalitate eta zeharlerrokotasunez txertatzeko mekanismoetan sakontzea.
- 3.4.3. Udalaren jardunean berdintasun politiken zilegitasuna irabaztea.
- 3.4.4. Udal politikan berdintasun ikuspegia zeharlerrokotasunez eta erantzunkidetasunez txertatzearen urgentziaren gaineko kontzientziazioa laguntzea.
- 3.4.5. Udaleko parte hartze estrategian eta kalitate demokratikoan sakontzea.

### 3.4. Objetivos instrumentales

- 3.4.1. Mejorar la calidad de las políticas municipales
- 3.4.2. Profundizar en los mecanismos para incorporar la perspectiva de género en las políticas municipales de forma interseccional y transversal.
- 3.4.3. Adquirir legitimidad de las políticas de igualdad en la actuación municipal.
- 3.4.4. Contribuir a la concienciación sobre la urgencia de la incorporación transversal y corresponsable de la perspectiva de género en las políticas municipales.
- 3.4.5. Profundizar en la estrategia municipal de participación y la calidad democrática.

*Gainerako hirurak ez bezala, helburu substantiboan garapena udalaren ardura izango da.*

*A diferencia de los tres restantes, el desarrollo de los objetivos sustantivos será responsabilidad del Ayuntamiento.*

### III. OÑATIKO EMAKUMION KONTSEILUAREN OSAERA ETA FUNTZIOAK

### III. COMPOSICIÓN Y FUNCIONES DEL CONSEJO DE MUJERES DE OÑATI

#### 4. ARTIKULUA. FUNTZIOAK

#### ARTICULO 4. FUNCIONES

Aitortutako helburuak erdietsi ahal izateko, hauek izango dira kontseiluaren funtzio nagusiak:

Para la consecución de los objetivos mencionados, serán **funciones principales** del Consejo:

- 4.1. Udal politikan berdintasun ikuspegia txertatzeko lehentasunak eta irizpideak proposatzea, ikuspegi feministatik.
- 4.2. Berdintasun arloko plangintzen eta politiken diseinuaren kontrastea, ikuspegi feministatik
- 4.3. Berdintasun arloko plangintzen eta politiken exekuzioaren jarraipena eta ebaluazioa, ikuspegi feministatik.

- 4.1. Proponer prioridades y criterios para incorporar la perspectiva de género en las políticas municipales desde una perspectiva feminista.
- 4.2. Contraste del diseño de planes y políticas en materia de igualdad desde una perspectiva feminista
- 4.3. Seguimiento y evaluación de la ejecución de las políticas y los planes en materia de igualdad desde una perspectiva feminista.



- 4.4. Herritarren beharren identifikaziotik, politika publikoen garapena sustatzea, ikuspegi intersektional batetik
- 4.5. Berdintasun politiken garapenerako Oñatiko II. Berdintasun planak ezarritako bermeak ezartzen direla ziurtatzea
- 4.6. Herriko emakume eta eragile feministen aldarrikapen eta gogoeten identifikaziotik politika publiko egokiak garatzen direla ziurtatzea, eta agenda feminista udal politiketan txertatzeko bideak adostea.
- 4.7. Jatorria, kultura, hizkuntza, gaitasuna, erlijioa, adina, sexua, generoa, sexu orientazioa, iritzi politikoa, maila soziala edo bestelako arrazoiak medio, babesgabetasun bereziko egoeran dauden emakumeen tratu eta aukera berdintasuna bultzatzeko politika publikoen sustapena.

- 4.4. Promover el desarrollo de políticas públicas desde una perspectiva interseccional desde la identificación de las necesidades de la ciudadanía
- 4.5. Para el desarrollo de las políticas de igualdad II. Asegurar la implantación de las garantías establecidas por el plan de igualdad
- 4.6. Asegurar que desde la identificación de las reivindicaciones y reflexiones de las mujeres y agentes feministas del pueblo se desarrollan políticas públicas adecuadas y acordar cauces para integrar la agenda feminista en las políticas municipales.
- 4.7. El fomento de políticas públicas dirigidas a la igualdad de trato y oportunidades de las mujeres que sufren una situación de especial desprotección por razones de origen, cultura, lengua, competencia, religión, edad, sexo, género, orientación sexual, opinión política, posición social u otras.

## 5. ARTIKULUA OÑATIKO EMAKUMION KONTSEILUAREN OSAKETA

## ARTÍCULO 5. COMPOSICIÓN DEL CONSEJO DE MUJERES DE OÑATI

Oñatiko Emakumion Kontseilua banakako parte hartzean oinarritutako organoa da, eraketa prozesu parte hartzailean hala ebatzita. Bi arrazoi nagusi jaso dira parte hartze modu honen arrazoiketarako:

- Ordezkaritza bidezko parte hartzean, ordezkaritza hori erreala izateko zailtasunak: kontseiluan parte hartzeko formek ez dute biderik ematen bertan eztabaidatutakoa taldera eraman eta taldearen iritzia bueltan ekartzeko; erritmoak azkarregiak dira horretarako eta, beraz, taldeko ordezkarieren ikuspegi partikularrari ematen zaio bide. Horrek segurtasun falta eragin dezake ordezkaritza izendatutakoengan, edo

El consejo de mujeres de Oñati es un órgano basado en la participación a nivel individual, de acuerdo con lo establecido en el proceso participativo de constitución. Se recogen dos razones principales para la motivación de esta forma de participación:

- En caso de optar por la participación representativa, se detectan dificultades para que dicha representación sea real en la práctica: el ritmo y la dinámica del consejo son demasiado rápidos, y no permiten a cada representante hacer el trabajo de contraste con el grupo al que vienen representando. Por eso, cada una puede terminar aportando su visión particular, sin contraste del grupo. Esto puede generar inseguridad en las

parte hartzea mugatu edo baldintzatu dezake, besteak beste.

- Herriko mugimendu feministaren baitako talde antolatuen ordezkariak ez du herriko ehun feminista osoa ordezkatzeko. Era formalean antolatu gabeko mugimendu eta sareak kanpoan utziko lituzke eta aniztasuna galduko luke espazioak.

representantes designadas o limitar o condicionar la participación.

- La representación de grupos organizados dentro del movimiento feminista de la localidad no representa a todo el tejido feminista de la localidad. Dejaría fuera movimientos y redes no organizadas formalmente en detrimento de la diversidad del espacio.

## 6. ARTIKULUA. KONTSEILUKO KIDEAK

Kide hauek osatuko dute:

- Gaiaren inguruan lan iraunkorra egiteko prest dauden emakumeek, norbanako gisa.
- Berdintasun teknikariak, idazkari, bideratzaile eta dinamizatzaile gisa.
- Partaidetza teknikariak, erraztaile gisa.
- Berdintasun departamenduko arduradun politikoak, lehendakari gisa
- Udalean ordezkari den alderdi politiko bakoitzeko ordezkari batek.
- Beharren arabera, beste teknikari batzuk gonbidatuko dira, edo beraiek eskatu ahal izango dute parte hartzea. Hitza izango dute baina botorik ez.
- Beharren arabera, beste ordezkari politiko batzuk gonbidatuko dira, edo beraiek eskatu ahal izango dute parte hartzea. Hitza izango dute baina botorik ez.
- Beharren arabera, elkarte, eragile, aditu edo bestelakoen parte hartzea eskatu edo ahalbidetu ahal izango da. Hitza izango dute baina botorik ez.

## ARTÍCULO 6. MIEMBROS DEL CONSEJO

Estará integrada por las siguientes miembros:

- Mujeres dispuestas a realizar un trabajo permanente en la materia.
- Técnica de igualdad como secretaria, facilitadora y dinamizadora.
- Técnica de Participación como facilitadora.
- La responsable política del departamento de igualdad, como presidenta
- Una representante de cada partido político con representación en el Ayuntamiento.
- En función de las necesidades, se invitará a otras técnicas y técnicos, o podrán ellas y ellos solicitar su participación. Tendrán voz pero no voto.
- En función de las necesidades, se invitará a otras y otros representantes políticos o podrán ellas mismas o ellos mismos solicitar su participación. Tendrán voz pero no voto.
- En función de las necesidades, se podrá solicitar o posibilitar la participación de asociaciones, agentes, expertas/os, etc. Tendrán voz pero no voto.

## 7. ARTIKULUA. IZENDATZEA

Kontseilukideak alkate dekretuz izendatuko dira. Proposamenak kontseiluko idazkariari bideratuko zaizkio, idatziz, udaleko eskabide orokorreko agiria era telematikoan edo Herritarren Arreta Zerbitzuan erregistratuta.

## ARTÍCULO 7. NOMBRAMIENTO

La designación de las participantes, se llevará a cabo por Decreto de Alcaldía. Las propuestas se dirigirán por escrito a la Secretaria del Consejo, registrándose el documento de solicitud general del

Edozein momentutan egin daitezke izendapenak.

## 8. ARTIKULUA. KIDE IZATEARI UZTEA

Kide izateari utziko zaio, honako kasu hauetan:

- Kide izateari borondatez uko egitean, idatziz jakinarazita.
- Kontseiluaren Araudia eta barne-araudia edo bere gobernu organoen ebazpenak behin eta berriz ez betetzea edo Kontseiluaren funtzionamenduari kalte larria egitea.
- Segidako lau bilkuretara huts egiten dutenean, huts egitearen gaineko azalpenik gabe.

Kontseiluan baja ematea alkate dekretuz egingo da. Edozein unetan bideratu ahal izango da kontseiluko kide izateari uzteko eskaera. Eskaera idatziz egin beharko da, eskaera orokor bidez, eta Herritarren Arreta Zerbitzuan edo era telematikoan erregistratuta.

## 9. ARTIKULUA. ORDAINSARIAK

Kontseiluko kideek ez dute ordainsaririk jasoko beren funtzioak betetzeagatik.

## 10. ARTIKULUA. ABSTENITU ETA EREFUSATZEKO ARRAZOIAK.

Kontseiluko kideek ez dute bozkatzeko prozeduran parte hartuko interes pertsonala jokoan dagoen gaietan, eta horrela jakinaraziko diote Batzordeko lehendakariari. Honek bidezkoena ebatziko du.

Ayuntamiento de forma telemática o en el Servicio de Atención Ciudadana. Se podrán realizar nombramientos en cualquier momento.

## ARTÍCULO 8. PÉRDIDA DE LA CONDICIÓN DE MIEMBRO

Se perderá la condición de miembro en los siguientes supuestos:

- Por renuncia voluntaria, comunicada por escrito.
- Por incumplimiento reiterado del reglamento y normas del consejo, de resoluciones de los órganos de gobierno o por perjudicar gravemente el funcionamiento del Consejo.
- Por faltar a cuatro sesiones consecutivas sin explicación alguna sobre su ausencia.

